



## Indarrean dagoeneko, Agoizko ibilgailuen trafikoa arautzen duen ordenantza

Agoizko Udalak, 2019ko martxoaren 7an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Ibilgailuen joan-etorria Agoitzen arautzen duen udal ordenantza.

Ordenantzaren testu osoa, 87 artikulua (haien artean, isunak jartzeko prozedura zehazten duena) eta eranskin bat, 2019ko abuztuaren 27an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO), eta behin betiko onetsita gelditu da.

Ordenantza Agoizko ibilgailuen zirkulazioa arautzeari eta egonkortzeari eta alde zaharra oinezkoentzat egokitzei begirako beste neurri bat da.

Jakitun gara ordenantzak, hasiera batez, nahasmena sorrarazi dezakeela garatzeko orduan. Baina kontuan hartu behar dugu gure zeregina dela gure herriko ibilgailuen trafikoa arautzea, Agoitz jasangarriagoa eta ibilgailuen eta oinezkoen presentzia bateragarri izan daitezen.

### ARAU OROKORRAK

- Debekaturik dago ibilgailuak eremu publikoan konpondu edo garbitzea, edo haien mantentze-lanak egitea.
- Ziklomotorrak erdibaterian aparkatuko dira galtzadan.

- Debeku da bizikletak, patinak, gurpil-oholak eta gurpil-ohol elektrikoak espaloietan, oinezkoendako eremuetan eta lorategietan barna ibiltzea.

- Debeku da ibilgailuak Agoizko herrigunean ibiltzea, garraiatzen badituzte merkataritzako gai arriskutsuak. Arau hau ez da aplikagarria gasolioa edo butanoa garraiatzen duten ibilgailuen kasuan.

- 5.000 kg-tik goitiko BGPa duten ibilgailuek debeku dute udal-mugarteko bide guztietan aparkatzea. Aurreko lerroaldean ezarritakoa ez zaie aplikatuko horretarako udal baimena duten ibilgailuei.

- 3.500 kg-tik gorako BGPa duten ibilgailuak aparkatzeko, Agoizko industrialdean Gamesaren eta Aspaceren artean dagoen orubea, eta 21 bidaiari baino gehiagorendako tokia duten autobusendako, zahar etxearen ondoko orubea.

- Karabanak hirigunean soilik aparkatzen ahalko dira udalak horretarako gaitutako eremuan, Euntzebidea eta Irati auzoaren artean.

### NEURRI ZEHATZAK

Domingo Elizondo auzoa, Mariano Garcia, Irigoien, Santa Ana, Labeko zeharkalea, Trinkete, Larrainetako, Merkatuko plaza, Hiriko, Plazako, Erreginordearen, Pasalekua, Kas-kabobo eta Maskarita, Francisco Yndurain, Errotako Aldapa, Karrika Meharra kaleetarako, honako arau hauek ezarri dira:

- Debeku da aparkatzea.
- Sarbidea bertan bizi direnei/merkatariei mugatua. 10 minutuko geldialdia egiten ahalko dute.
- Lehenetasuna oinezkoek dute.
- Oinezko karrketan gehieneko abiadura 10 km/h izanen da.
- Zama-lanak 8:00etatik 12:00etara, astelehenetik larunbatera, baimen bereziak igande eta jaiegunetarako.
- Zirkulazio librea, seinaleak errespetatuz, ondoko karrketan: Santa Agata, Karrika Berria, Udaletxeko Plaza, Landako, eta San Migel.

Trafiko murriztuko baimena txartela eskatu ahal da. Horretarako, baldintza hauek ezarri dira:

a) Iraunkorrak:

Ohiko bizilekuko egoiliarak, ade



zaharreko saltokietako titularrak, bigarren etxebizitza Agoitzen izan eta ibilgailurik atxikirik ez dutenak, alde zaharrean ibilgailu egoiliarrik ez duten mugikortasun urriko pertsonen ahaideak, osasun etxeko langileak, gizarte zerbitzuak.

b) Unean unekoak:

Gremioak (obra baimena dutenak) eta profesionalak, hileta zerbitzuak, aldi batez gaoixorik dauden bizilagunak eta udaletik beharrezko jotzen diren beste batzuk.

#### MENDIBURUA PLAZA

- Espaloi bat gaituta dago ibilgailuak bertan aparkatzeko.
- Ezin izanen dira ibilgailuak 10 minutuz baino gehiago aparkatu. Orduetgia: astelehenetik ostiralera: 8:00-20:00. Larunbat eta igandeetan: 8:00-14:00.
- Plazako gainerakoan debeku da zeinahi ibilgailu gelditzea edo aparkatzea.
- Badira zama-lanetarako guneak gaitu dira. Orduetgia. 08:00etatik 12:00etara, astelehenetik larunbatera, baimen bereziak igande eta jaiegunetan.

Ordenantzak, gainera, kaleen norabidea eta aparkatzeko eta zama-lanetarako eremuak zehazten ditu.

#### ISUNAK JARTZEKO PROZEDURA

Ordenantzaren arau-haustek isunak ekarriko ditu, 100 eurokoak arinenen kasuan eta 1.000 eurokoak larrienenean hain zuzen ere.

Halaber, ordenantzaren kontrola Foruzaingo eta Goardia Zibilaren esku gelditu da.

Ordenantza pasa den 2019ko azaroaren 4an hasi zen aplikatzen.

### ORDENANTZA OSOA, HEMEN IKUSGAI

➔ UDAL WEB ORRIA [agoitz.eus/ordenanza-traffic-aoiz](http://agoitz.eus/ordenanza-traffic-aoiz)

➔ NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALA [navarra.es/home\\_es/Actualidad/BON/](http://navarra.es/home_es/Actualidad/BON/)

2019ko abuztuaren 27a, asteartea  
168. zenbakia - 10595. orrialdea

## Azkoiengo alkatea, Juan Carlos Castillo, NUKFko lehendakaria

Azkoiengo alkatea, Juan Carlos Castillo, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakari aukeratu zuten erakundeak gobernuko organoak berritzeko urriaren 4an ospatu zuen biltzarrean. Bigarren bozketan 690 boto lortu zituen Castillok, Mario Fabok Martzillako alkateak 492 eta Antsoaingo alkateak, Ander Orozek, berriz, boto bakarra. Oro-

zek, lehen itzulian 376 boto lortu zituenak, bigarren bere aldeko boto-emaleei Castillon alde bozkatzeko eskatu zien.

Federazioko estatutuek ezartzen duten legez, lehenengo eta bigarren lehendakariordeak lehendakariorde aurkezturikoak eta boto kopuruaren hurrenkeraren arabera kargurik lortu ez dutenak izaten

dira. Modu horretan, Fabo lehengo lehendakariordea da eta Oroz bigarren lehendakariordea.

#### BATZORDE BETEARAZLE BERRIA

Lehendakaritzaren hautapenaren ondoren, Batzorde Betearazleko bokalak aukeratu ziren. Angel Martín Unzué Agoizko alkatea izango da Agoizko eskualdeko ordezkaria.



## Cederna-Garalur-en eskutik, Agoitz ekonomia borobila sustatzen hasi da, "jolastu! gutxitu eta berrerabili"!

Agoizko 40 hurrek parte hartu zuten pasa den urriaren 5ean Agoitzen egindako "Jolastu! Gutxitu eta Berrerabili" jaian.

Ekimena Cederna-Garalur elkarrekin antolatutakoa zen, Irati Hiru Hondakinen Mankomunitatea eta Guraso Elkarte eta Karekin Kulturaren laguntzarekin, eta haren helburua zen baztergarri ez diren hondakinen tamainaz ohartaraztea; izan ere, egunero brick, lata, botila eta plastiko andana botatzen dira, eta haiei bigarren erabilera bat eman ahal zaie, jostailu bilakatuz, esaterako.

Hala, jaira bertaratutako hurrek boloak egin zituzten esne botilak apainduz, eraikinak osatu zituzten tetra-brik kutxa hutsekin, letxugak landatu zituzten berrerabilitako eta propio dekoratutako ontzietan eta jostailuak egin zituzten plastikozko botilekin. Txetxu Col-

lado aktoreak girotu zuen jarduna. Irati Giri Hondakin Solidoen Mankomunitateak, gainera, gure garbi mugikorra eraman zuen, hurrek plastikozko ontziak bertan utzi eta haien truke Irati txanponak eskura zitzaten. Mankomunitateak Irati txanpona martxan jarri du, birziklapena sustatzeko, eta inizatibari atxiki diren herriko 14 komertziotan erabil daiteke.

Bestalde, Patxi Huartek, herriko hurrekin batera, instalazio kolektibo bat egin zuen botila, tapoi, lata, azpil eta ontziez baliatuta, jendaurrean Kultur Etxean jarriko dena heldu diren asteetan. Egindako jostailuak, berriz, hezkuntza zentroei oparitu zaie, sentsibilizazio kanpainak aurrera jarrai dezan.

Aktibitatea "Nafarroa borobila" deitutakoa-ren markoan egin da. Nafarroako Tokiko Ekintza Taldeek



elkarkidetzan antolatutako proiektua Nafarroako Gobernuak Toki Garapen Departamentuak finantzatu eta Lursareak (Jasangarritasunerako Nafarroako Agentzia) koordinatu du. Haren helburua da ekonomia borobila sustatzea Foru Komunitateko landa eremuan, LEADER ikuspuntuarekin.

## Klima-aldaketaren kontrako erantzukizunak hartzeko mozio bat onetsi da



Klima-aldaketak eta horrek ekar ditzakeen ondorioen kontra egiteko eta politika publikoak horretara egokitzea eramateko Agoizko udalak larrialdi klimatikoaren deklarazio bat onartu zuen.

Mozioak, EH Bilduk aurkezturikoak, klimaren larrialdi-deklarazioa jasotzeaz gain, aldaketa klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorren aldeko garapenerkin konpromisoa ere erakusten du. Ekimenaren helburua egoeraren larritasuna onartzea da, Larrialdi Klimatikoan arreta jartzeko asmotan.

«Erronka paregabe baten aurrean gaude, larrialdi klimatikoaren inguruko eztabaida erakunde guztietan egin behar da, eta udalaren esparrutik gainerako zeregin baten aurrean egon arren, egoerak

guztien arteko eta partekaturiko ahalegina eskatzen du» nabarmendu zuen Ángel Martín Unzué Agoizko alkateak.

Mozio horrekin Agoizko udalak Nafarroako Parlamentua premiatu nahi du Energia Ereduaren Trantsizioa eta Klima-aldaketaren Lege bat ahalik eta azkarren onartzera. Gainera, larrialdi klimatiko egoera adierazteko eta aldaketa-klimatiko delatza jasoko ditugun ondorioetara moldatzeko beharko ditugun neurri berezi batzuk martxan jartzeko eskatuko dio Nafarroako Gobernuari.

## Prozesu independentistaren epaia errefusatu du kontzentrazio batek Agoitzen

150 pertsona inguru bildu zen Udalletxeko plazan Auzitegi Gorenak Kataluniako prozesu independentistaren sustatzaileen kontra eman duen kondena-epaiaren gaitzespena erakusteko «demokraziaren kontrako eraso larritzat» jotzen delako.

Mobilizazioak, non estelada batzuk ikusi ziren, «Askatasuna» hitza begizta hori handi baten ondoan jarritako pankarta bat izan zuen buru.

Protestara udal-ordezkarri batzuk hurbildu ziren, eta independentziaren aldeko, erabakitzeko es-

kubidearen aldeko eta prozesu independentistaren buruen aldeko kontsignak entzun ziren.

Kataluniako herriarekin solidartatea erakusteko pankarta udalletxeko balkoian zintzilik egon zen egun guztian zehar.



## Pertsona jubilatuta eta alargunen Plataforma Elkartearekin hitzarmena sinatuta

Joan den urrian ospatutako osoko bilkuran, Agoizko Jubilatuta, pentsiodun eta alargunen Plataforma Elkartearen eta Agoizko udalaren arteko hitzarmen arauemailea onetsi zen. Horren iraupena 5 urtekoa izango da, eta eskatuz gero, beste 5 urtera luza daitekeena.

Modu horretan, sinaturiko hitzarmenaren helburua Gizartetxeke eraikineko (Kamineroen etxean) lehen solairuko gela baten eta beheko solairuko komunetako baten (kanpoko komuna) lagapena arautzea.

Udalak hartuko duen konpromisoa honako hau da: lokala utziko du, argia, ura eta berogailuen erabilera udalaren kontura izango dira, eta astelehenetan 19:00etatik

21:00etara izango da erabilera. Eta elkartearen aldetik, beste bete beharreko batzuen artean, pertsona helduen giza-jarduerak eta kulturalak sustatu, eta baita momentu zehatz batean prestakuntza edo dibertimendua izan daitekeen beste edozein ekintza prestatu ere (oporetako edo kulturalak izan daitezkeen bidaiak, hizkuntza ikastaroak, beste elkarte batzuekin trukeak, mintegiak, hitzaldiak...).



## Bi hitzaldi berri antolatuta

Bi mintegi interesgarri, auzokoen harrera oso ona izan zutenak, eman ziren joan den urrian. Alde batetik, AFAk, Nafarroako Alzheimerdunen Senideen Elkarteak, Nafarroako Gobernuarekin batera, «Musikoterapia eta Alzheimerra» hitzaldia antolatu zuen, bertan, musikak gaixorik dagoen pertsonaren area afektiboa eta kognitiboa suspertzten duela eta bere jarrera sozialei mesede egiten diola azaldu zuten.

Gainera, musika hari nagusi harturik ariketa praktiko erraz batzuk egin ziren eta onuragarriak diren emozioak gogora ekartzeko eta jarrera komunikatiboa errazteko duen indarra ikusi ahal izan zen.

Eta Agoizko Osasun-zentroak Agoizko Jubilatuta, Pentsiodun eta Alargunen Elkartearekin eta herriko udalarekin batera antolatuta, bizitzeko modu osasuntsuen inguru-

rako tailer bat antolatu zen: iktusa eta bere prebentzioa. Jardunaldi oso interesgarria izan zen, hara hurbildu ziren pertsonei zerebro-baskularrak diren gaixotasunen arrisku-faktore nagusiak argitzen lagundu zuen, baita gaixotasunari aurrea hartzeko giltzarriak ere: elikadura eta kirol fisikoa. Azken finean, prebentziorik onena bizitza osasuntsu bat da.



## FDN Erronka Solidarioaren edizio berri bat

Joan den urriaren 11tik eta abenduaren 9ra arte, FDN Erronka Solidarioa-«La Caixa» Gizarte-ekintzaren kirol lehiaketa indarrean dago. Lehiaketa berri bat, non «Agoitz kardio-osasuntsua» ekimenarekin Agoizko udalak, berri ere, parte hartu duen.

Agoizko osasun-zentroak, Kanpondoak, eta Agoizko udalak elkarrekin lagundurikoa, aurtengo egitasmoa berri egin da osasun-zentrori jotzen duenari betiko botikako errezetari beste bat gehitzeko helburuarekin: kirol-errezeta, gaixotasun kronikoa duten gaixoei zuzendutakoa.

Gainera, «Hidroterapia kirol-errezeta» erantsi du mugikortasun artikularra edo tonu muskularra kalteturik duten pertsonentzat, fibromialgia dutenentzat eta

arazo afektibodunak edo estresaren ondoriozkoak dituzten pertsonentzat.

Egitasmo hau, errealitate bat dena, eredu da gaixotasun kronikoa duten gaixoen tratamendurako oinarriko estrategia modura lan egingo duen osasun-arreta eredu bat nola ezarri jakiteko.

Mugikorra duen edozein pertsonak parte hartu ahal du erronka honetan. Oso erraza da, telefono mugikorretik bertatik <https://fdn.wefitter.com> webean azaltzen diren argibideak jarraitzea baino ez da egin behar. Web-orri horretan zehazten da «Erronka solidarioan» modu erraz batean puntuak gehitzeko era.

Bat egin Erronkarekin eta parte hartu!

LA RECETA deportiva  
Kirol ERREZETA



Agoitz  
Bihotz Osasungarria  
Agoiz  
Cardiosaludable



## Agoizko mendi lasterketaren IV. Edizioa egin da

180 pertsonak parte hartu zuten Agoizko IV. Mendi Lasterketaren edizioan. Beroa izan zen Angiluerreka eta Kanpondoak, Agoizko Udalaren laguntzarekin, antolatutako zitaren ezaugarria, eta, haren ondorioz, aurikusitako baino horriketa puntu bat gehiago antolatu behar izan zen.



Lasterketak herria eta Zarikietako mendia lotzen ditu, eta, urtero bezala, bi luzera zituen. Lasterketa luzeak (maratoi erdia) 1.200 metroko desnibela zuen, eta, hartan, bi espezialista gailendu ziren, Xabier Zarranz (A4xKm) eta Mainer Fraile (Noaingo MT) hain zuzen ere. Irunberriko lasterkariak erraz irabazi zuen, 7 minutuko aldea atera baitzion bigarren gelditu zen Jesús Mari Alegría arroniztarrari. Emakumeen kasuan, aldiz, garai-

pean airean egon zen azken unera arte, Frailek segundo batzuetako aldea baino ez ziolako atera María Irigoyeni (Marmottrail).

Lasterketa motzagoaren kasuan (13 km, 650m+), 102 korrikalarik ailegatu ziren: lehenak Iñaki Lataza Agoizkoa (Txurregi) eta Haizea Ramírez de Alda altsasuarra (Iratxo).

Laugarren edizio hau, aurrekoak bezala, oso arrakastatsua izan da, bai antolaketa bai kirol ikuspuntutatik. Nabarmendu eta eskertzekoa da jendearen kolaborazioa, asko izan direlako dena prest edukitzeko eta lasterketak honek indarra hartu eta kirol egutegian leku nabarmena izan dezan lan egin duten pertsonak. Zorionak!

## XIV. Argazki Lehiaketa ebatzi da

«Pensamientos» da Agoitz Hiria XIV. Argazki Lehiaketaren modalitate orokorreko argazki irabazlea. Ramón Leache Echeverría Agoizkoa da argazkiaren egilea. Nafarroako Parkearen irudi bukolikoa agertzen duen argazkiak ongi merezitakoa du oinarrietan ezarritako 500 euroko saria.

Herri mailan, Alfredo León Mañú izan da irabazlea. «Una mañana de verano» argazkiak Errotako al-

dapan goiz eguzkitsu bateko ohiko eszena bat agertzen du. Alfredok 300 euro jasoko ditu argazkiaren-gatik.

Sari-emate ekitaldia abenduaren 13an ospatuko da. Egun berean, sariak eman eta gero, inauguratuko da bi sariketara aurkeztutako lan hoberenak jasotzen dituen erakusketa.

Aurten ere herrikoen sariaren ja-

sotzailea bozkatzeko aukera eman zaie herrian erroldatutako guztiei. Aurkeztutako argazkien guztien artean epaimahaiak hiru aukeratu eta on-line aukeratzea izan dute herrikoek, udal web-orrian gaitutako formulario baten bidez.

Nabarmenezkoa da izandako parte-hartzea eta aurkeztutako lan guztien kalitatea; horrek epaimahaiari zaildu zion azken erabakia hartzea.



Modalitate Orokorra: "Pensamientos". Ramón Leache Echeverría



Herrikoen Modalitatea: "Una mañana de verano". Alfredo León Mañú

## Teileriako ahaztuak-ek egindako eskaria

Datorren azaroan Patxi Aldunate Los Arcosek eginiko eskultura multzo bat jarriko da Eloko Teilerian zegoen hilobi-aldean.

lirateke gastua osoa estaltzeko. Horregatik, TEILERIAKO AHAZTUAK elkarteak laguntza eskatu du.

Ekarpena egitea dago, TEILERIAKO AHAZTUAK elkarteak Laboral Kutxan duen kontu zenbaki honetan dirua sartuz: ES84 3035 0183 6618 3002 7614.

Duela gutxi Nafarroako Gobernua MEMORIAREN LEKUA deklaratuakoa, Nafarroako hilobirik handiena da (106 bat hildako zituen, horietako 11 Agoizkoak). Obraren aurrekontua 20.000 eurokoa da, eta 6.500 euro beharko



Kontzeptu hau adierazi: "LUGAR TEJERÍA" ETA IZENA (entitate edo erakundea).

Eskerrik asko!

## Marysa Navarrok eta Agoitzek lotura sendotu dute

Bere jaioterrira bisita bat aprobetxatuz, Marysa Navarro Aranguren (Iruña, 1934) Agoitzera hurbildu zen, bere ama Luisa zenaren herrira. Marysak ezagutzen zuen herria, baina oraingoan Agoizko udalari opari bat egin nahi izan zion; 1922.eko argazkia, zeinetan bere aita, Vicente Navarro Ruiz irakaslea, beste berrogeita hamar ikaslerekin, Argamasilla Jauregiaren aurrean agertzen den.

Vicente irakasle egon zen Agoitzen eta Faltzesen, eta Lehen Hezkuntzako ikuskatzaile izan zen II. Errepublikan. Ezker Errepublikarreko kide izan zen, eta horrek behartu zuen, uztailaren 18ko altxamendu militarren ostea, Iruñetik modu klandestino batean ateratzera, gero Frantziara joateko, eta, azkenean, Bizkaiara, non Lehen Hezkuntzako ikuskatzaile izan zen eta Nafarroako UGTko, eremu nazionaletik ihes egindakoek osatutakoa, Zuzendaritza Batzordeko batzordekide izendatu zuten.

Agoizko alkatearekin elkartu zen, garai batean antzinako eskolak egon ziren eraikinean, gaur egun udaletxea dena, bere aitak lana garatu zuen lekuan, zehazki. Ángel

Martín Unzuék, agoiztar guztien izenean, hain ederra den irudia ematea eskertu zion Marysari. Era berean, alkateak, Marysa eskertu nahi izan zuen, eta «Agoitz, iragana gogoan» izeneko liburua eta jaietako bi zapi eskaintzeaz gain, Agoizko Udal Artxiboan gordeta zeuden antzinako hainbat dokumentuen kopiak ere eman zitzaizkion, bere aitak Herriko eskoletan eman zituen urteetako pasarte batzuen laburpena, esaterako, bere aita irakasle izendatu zenekoa.

Marysa Navarroken ibilbidea ez da oso ezaguna bere jaioterrian, zeren, nahiz eta Nafarroako hiriburuan jaio, bere bizitzaren zatirik handiena Espainiatik kanpo eman du. Historiografia feministan eta Latinoamerikako emakumeen historian aditua da, batez ere, Eva Perónenean. Columbiako Unibertsitateak (Estatu Batuak) izendatuta Historian doktorea da eta Ipar Amerikan garatu du bere bizitza akademiko guztia, non zenbait hamarkadetan unibertsitateko irakasle izan zen.

Bere ibilbidean jaso dituen sariaren artean aipagarrienak honako

hauek dira: New Hampshire-ko Unibertsitateko «Ikertzaile Bikainarena» ("Distinguished Woman Scholar"), Buenos Aires Hiriko «Bisitari Bikainarena» eta Dartmouth College-n irakasle emandako urteen bikaintasunagatik jasotako "Elizabeth Howland Hand-Otis Norton Pierce Award for Outstanding Undergraduate Teaching".

Marysa Navarrok Agoizko alkateari herrira bueltatzen denean hitzalditxo bat emango duela agindu dio. Egia esan, kontatzeko gairik ez du faltan izango.



## Kultur balantzea

Hilaren hasieran Kulturgune foroak bilera bat ospatu zuen balantze bat egiteko, bai zaindariaren jaietakoa, bai San Migel jaietakoa, eta udarako programaturiko jarduera kultural guztien garapena aintzat hartu zen.

Agoizko Kultura-etxeak «Uholdeak, mahaira» erakusketa jaso zuen urrian. Ekimen hori Foru Erkidegoko kultura-gune ezberdinetara zabalduko den artista nafarren lanen azalpenezko programa ibiltari bat modura jaio zen. Edonolako ikusleei zuzenduriko jarduerak izango ditu lagun, urtero Nafarroako lurralde osoan zabaldu nahi du arte garaikidea lekukoak diren artisten lanak ekoizten duten tokian baino gehiagotan erakusteko asmotan.

Erakusketaz gain, zuzeneko bazkalondo pare bat ere ospatu ziren: 12 urtetik beherakoei zuzendutako arte plastiko tailer bat, eta arte biziaren emanaldi bat.



Greta Alfaro, Fermín Díez de Ulzurrun, Fermín Jiménez Landa, Amaia Molinet, Leire Urbeltz eta Maia Vi-llost izan dira lehenengo edizio honetan parte hartu dutenak.

Urterokoa izateko asmoarekin jaio den ekimena Agoitzen izateaz gain, laster, Tuteran, Altsasun eta Tafallan izango da ikusgai. Uharteko Arte Garaikidearen Zentroa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, La Caixa Fundazioa eta aipaturiko lau herrietako kultura-guneak elkarlanean egindakoaren emaitza erakusketa.

Jaione Urtasunek emandako ipuin kontalarien emanaldi bat ere ospatu zen, «Pontxarekin Jolas eta Ipuin»ekin hurbildu zen liburutegira joko eta kantekin istorioak kontatzeko eta txikienek ongi pasa zezaten.

Musikak ere bere tartearen izan zuen: Bilaketak antolatuz, kafe-konkzertua izan zen eta, baita, Nafarroako Abesbatzen Federazioko Abes-



batza Lirikoaren saioa ere, Agoizko San Migel Abesbatzaren 75. urteurrena zela eta etorri baitziren Herrira.

Bizkaiko Markeline antzerki taldea "Euria" keinu bidezko ikuskizunarekin etorri zen Agoizko Kultur Etxera. Asko maite dugun gauza edo pertsona bat falta denean, horri buelta emateko dugun gaitasunaren inguruan hitz egiten duen opari asko (FETEN 2017 eta «Cornel Todea» FITC 2018) jaso-tako lana.



## 2020-2023 aldiko Euskara Plana

Agoizko Udala 2020-2023 aldirako Euskara Plana prestatzen hasi da. 2019an bukatu zenaren jarraipena da. Planak udalak orain arte aplikatzen dituen neurriak jasotzen ditu, eta beste berri batzuk ere: herriko kirol eta aisia-kultur arloetan aritzen diren taldeen euskarazko eskaintza zabaltzea,

euskararen egoeraren diagnostika egitea, bestek beste.

Aurreko planekin egin zen moduan, partaidetza prozesu bat abiatuko da, arloko entitateek nahi interesatu guztiek ekarpenak egin ditzaten. Plana, datorren urteko hasierarako prest eduki nahi da.

